



MUTURREKO BIZI BALDINTZAK NEPALEN

Dolpo eskualdean zentral txiki batzuk eraikitzeko diru-laguntza eman du Amezketako Udalak » 2

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteazkena
2010-01-06

VIIIURTEA 1.895.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Leitzan herriko abesbatzak egin zien harrera plazara gerturatutako Errege Magoei. A. IMAZ

MUXUAK, NEGARRAK ETA GOZOKIAK ERREGE MAGOEN ETORRERAN

EGUBERRIAK Herri guztietara joan ziren atzo iluntzean ekialdetik iritsitako Meltxor, Gaspar eta Baltasar Erregeak » 4-5

Bazkaria eta manifestazioa egin dituzte Inpernu Gazte Asanbladako kideek

TOLOSA Duela astebete okupatu zuten hutsik zegoen Korazonisten eliza » 3



Manifestazioa egin zuten atzo arratsaldean Tolosako kaleetan. E. EZEIZA

Bilera egingo dute Atsaureen kalejira prestatzeko

LEITZA Inauteriak hilaren 22an hasiko dira eta ondorioz, herritarrek hasi dira dena antolatzen » 7



N. LATABURU

IZARO SAIZAR ETA ELENE ARANDIA 'BI GIRA' SAIOKO IRABAZLEAK

«Saioa irabazi dugu, baina orain guk eraiki behar dugu gure bidea»

KULTURA Berastegiko eta Ibarako bi gazteak ETB-1eko saioa irabazi berri dute » 6

Presoei elkartasuna adierazteko afaria debekatu dute

LEITZA Marlaska epailearen iritziz ekitaldian «terrorismoa goresteko» arriskua zegoen » 7

IMANOL GARCIA

Amezketeta eta Nepaleko iparraldean dagoen Dolpo eskualdea, elkartuta daude nolabait. Lurralde hartan Lurrean Gizalaguntza elkarteak garapenerako proiektua bultzatzen ari da eta Amezketako Udalak horrelako egitasmoetara bideratzen duen diru laguntza eman dio.

Jose Ramon Agirre Marron da elkarte horretako kidea eta Dolpo Gizalaguntza izeneko proiektua eramaten ari da. «Gure asmoa da hainbat udalerritan proiektuaren berri eman eta diru laguntzak jasotzea», azaltzen du Agirrek. Tolosaldean Amezketeta da bakarra egitasmo horri diru-laguntza ematen duena oraingoz, baina beste udaletxe batzuen atea jartzeko asmoa dute elkartetik.

Agirre mendizalea da eta hainbatetan bidaiatu du Nepalera. Iaz Dolpoko biztanleekin harremanetan izan zen. «Eskualde hori oso baztertuta dago. Ez du azpiegiturarik eta bertara iristeko zazpiegunetan oinez joan beharra dago», gogoratzen du. 35 herri daude eskualde horretan eta 4.000 metroko altueran bizi dira. «Memento honetan elurrez gainezka daude».

Bizi baldintza horiek haurrengan eragin handia dute. «Biztanleen %50 ez da bost urtetara iristen», dio proiektuaren bultzatzaileak. «Elikagai arazoak dituzte eta gaitasunak ere bai, batez ere biriketakoak eta urdailetakoak. Negu gorri horiek igarotzeko etxeetan dituzten baldintzak ez dira batere onak».

Argindarra izateko zentralak

Proiektuaren helburua argindarra izateko zentral txiki batzuk jartzea da Dolpoko bi herritan. «Orain arte egurra erabili dute, baina kasik basorik gabe gelditu dira inguruan», azaltzen du Agirrek. «Gainera beraien etxeak ia leihorik gabekoak dira, dena ketu egiten da eta horregatik arazo handiak izaten dituzte». Laguntza asmoa zutela agertu zienean bertako biztanleek «beraien lehentasunak zein ziren» azaltzeko eskatu eta argindarra behar zutela azaldu zuten.

Guztira proiektuaren aurrekontua 100.000 euro ingurukoa da. Proiektu teknikoa egin berri du Errenteriako Ekain enpresak. Bertako kide bat izan da Dolpon Agirrerekin batera. Espero dute 2011ko udan muntaia egitea eta urte horretako udazkenean martxan egotea zentralak.

Herri horietan bi erreka emari daude eta bakoitzean zentral bana jarriko da. «Urak mugituko errota txiki batzuk dira, bere saltoarekin, modu simplean», zehazten du Agirrek. «Hemen bertan, Nafarroan, badaude horrelako zentralak Beintza-Labaien eta Arantzán. Ekain enpresak jarritakoak dira». Agirrek gaineratzen duenez, argindarra izatea oso garrantzitsua izango da. «Gainera Frantziako GKE batek eskola bat egiteko asmoa du bertan. Harremanetan



Amezketako Udalak Joxe Ramon Agirre 'Marron' Nepalen bultzatzen ari den proiektuari diru-laguntza eman dio. Dolpo eskualdean zentral txiki batzuk eraikiko dituzte argindarra izateko.

Muturreko bizi baldintzak



gaude beraiekin eta eskola horretarako ere oso premiazkoa izango da argindarra».

Garapenerako laguntza hauek eginkizun bikoitza izaten dutela dio mendizaleak: «Beraiek jaso dezaketena eta guri bizimodu hori gertuagotik ezagutzeak ere ematen diguna. Gure hemengo bizimodu nolakoa den askotan ez gara jabetzen».

Aurrekontuaren %0,7

Amezketako Udalak proiektuari eman dion diru laguntza 12.000 eurokoa da, erdia 2008ko aurrekontuetatik eta bestea 2009kotik. Hau da, urtero udal aurrekontuaren %0,7 inguru. Jesus Iñurritak alkateak azaldu duenez, «seguruen proiektu horri emango zaio diru-laguntza».

Udalak diru-laguntza hori proiektu bakar bati ematea erabaki zuen eta garrantzia eman dio nola egiten den kudeaketa. Iñurritak azaltzen duenez, «kudeaketa gertutik ematen da. Ikusi genuen Marron proiektuaren gainean zegoela, pauso guztiak berak jarraituz eta horregatik aukeratu genuen diru-laguntza proiektu horri ematea». Alkateak gaineratzen due-

nez, «askotan gertatzen da dirua ematen dela eta gero ez dela jakiten nora iristen den. Kasu honetan zuzenean du tratua Joxe Ramon Agirrek proiektuarekin eta biztanleekin eta dirua ere horrelaxe iritsiko zaie».

Pausoak gauzatu ahala, egitasmoari buruzko informazioa ematea eskatzen dio Udalak Agirreri eta horren baitan, orain gutxi, dokumentala erakutsi zuen mendizaleak Amezketan. «Bertan Dolpoko biztanleak nola bizi diren eta proiektua nola zihuan ikusi genuen», azaltzen du alkateak. «Uda garaiko irudiak ikusi genituen eta oso leku politak ziren. Gero, neguan nolako bizi baldintzak izan behar dituzten imajinatu egiten duzu».

Agirrek urteak daramatza lurralde ezberdinetara bidaiatzen eta bertan egindako dokumentalak aurkezten. Oraingo honek *Bizizaren muturrean* du izena. Lurralde horretan biziduna eta bizigabekoa oso gertu daudela dio: «Ia ez dago landaretzarik eta oxigenoa ere oso gutxi dago. Egunerokotana erronka bat da bertako biztanleentzat. Dolpotik gora mendi handietako izotzak eta elurrak besterik ez daude».

Jendea sentsibilizatze eta «oraindik guretzat ezezaguna den lurralde bat gerturatzeko» erabili nahi du lan hori Agirrek. «Giza ikuspegitik egin genuen dokumentala. Orain arte gehiago landu ditut mendia eta horrelako gaiak. Nik uste dut urtetik urtera joan naizela bilakaera hori ematen, giza ikuspegi hori zabaltzen».



Gaztetxe berriari ongietorria

GIZARTEA • Erregeei parrandan itxaron zieten atzo Inpernu gaztetxean. Duela astebete okupatu zuten hutsik zegoen Korazonisten eliza Tolosako Inpernu Gazte Asanbladako kideek, eta oraindik han jarraitzen dute. Lehendabizi, atzo, bazkaria egin zuten bertan, eta arratsaldean berriz, kalera atera ziren *Gora inpernu! Okupatu eta eraiki* lelopean. Aipatu bezala, festa giroan eman zioten amaiera egunari. ESTIEZEIZA

tzen dute. Lehendabizi, atzo, bazkaria egin zuten bertan, eta arratsaldean berriz, kalera atera ziren *Gora inpernu! Okupatu eta eraiki* lelopean. Aipatu bezala, festa giroan eman zioten amaiera egunari. ESTIEZEIZA

Bonbereneako aurtengo lehen kontzertua, Garirena

Musika • Bakarleri legazpiarrak bere azken lana, '16 lore' izenekoa, aurkeztuko du etzi zuzenean 22:30ean.



Hertzainak taldeko abeslari ohia Tolosan izango da bihar. HITZA

ERREDAKZIOA

Gari musikaria Tolosan izango da etzi, hilak 8, bere azken lana, *16 lore* izenekoa, aurkeztuko. 2010 hasiberri honetan, Bonberenean entzungai izango den lehen kontzertua izango da legazpiarrarena eta 22:30ean hasiko da.

16 lore bildumak «balio sinboliko pertsonal handia» duten hainbat garaitako hamasei abesti jasozten ditu. Horietako hiru Hertzainak taldearen garaikoak dira, eta beste hamairu, bakarkako bizitza artistikotik erreskatatutakoak.

2009 hasieran, Kongora joan aurretik, grabaturik utzi zuen Gari bere lan berria. Urteek ematen duten ikuspegiarekin, atzera begirako sotila bezain sentikorra aurkezten du bertan kantariak, bere musika-ibilbideari errebasoa egiten.

neza. *16 lore* diskoak «bizitza bat, jarrrera bat eta sentimentu bat» 16 kapitulutan biltzen dituen kontakizun «gazi-goza» da. Disko honekin, hausnarketa ugari burutu eta aldaketa pertsonal sakonak bizi ondoren, Gari susperturik eta grinaz beterik dator. Betidanik kantuetan izan dituen kezka eta gaiak, barru-barrutik berriro aldarrikatzeko.

Legazpiarraren kontzertua, hala ere, ez da izango asteburuko

ekitaldi bakarra. Larunbatean urtebete egingo du Bonbereneako irratia eta urteurrena ospatzeko, irati maratoia izango da bertan. Egun borobiltzeko, gauean, Biok talde metaleroa entzuteko aukera izango da.

Igandean, berriz, aurreko egunetako ajea igarotzen laguntzeko, film bat eskainiko dute Zineklubean, *El Curioso caso de Benjamin Button*, hain zuzen ere, 19:00etatik aurrera.

Erregetako kontzertua izango da gaur eguerdian

Kultura • Tolosako Musika Banda eta Udal Txistulari Banda zuzenean entzuteko aukera izango da 12:30ean, Udal Musika Eskolan.

koren *Minuetoa*, Isidro Ansoaren *Ume eder bat* eta J. I. Ansoaren *Minerren Atzerriko eguberria*. Iñaki Letamendiaren zuzendaritzapean ariko dira musikariak.

Kontzertuaren bigarren zatian Musika Bandakoak izango dira protagonista nagusi. Hauek bederatzi abesti interpretatuko dituzte: Eduardo Mocoroaren *Errege jaia*, eta Johan Straussen *Persian March*, *Annen Polka*, *La Chasse*, *Trisch-trasch-polka*, *Perpetuum mobile*, *A orillas del danubio azul*, *Unter donner und blitz* eta *Radetzki Mars*. Zuzendar lanetan, ohikoa den bezala, Luis Mari Gartzia Arretxe ariko da.

ERREDAKZIOA

Tolosako Musika Bandak eta Udal Txistulari Bandak urtero legez, Erregetako kontzertua eskainiko dute gaur. 12:30ean izango da emanaldia, Udal Musika Eskolako areto nagusian.

Emanaldiko lehendabiziko zatian, txistularien bandakoek hiru abesti eskainiko dituzte: E. Basur-

Laburrak

Gabonetako pinuak jasoko dituzte gaur eta bihar

GIZARTEA • Eguberriak amaitzear dira, eta etxe gehienetan, oraindik ere apaingarriak jarrita jarraitzen dute. Beste hainbat urtetan egin den bezala, Tolosaldeko Mankomunitateak zerbitzu berezi bat eskainiko du, eta Gabonetako pinuak jasoko ditu aurtan ere. Herritarrek gaur eta bihar gauean utzi ditzakete pinuak edukiontzien aldamenean.

Helduentzako ikastaroak, hil honen erditik aurrera

HEZKUNTZA • Tolosaldeko Bozi zerbitzuak helduentzako doako ikastaroak antolatu ditu beste behin ere. Urtarrilaren erdian hasiko dira eta ondorengoak dira apustu sendoenak: mobilizazioak, transferentziak eta dementziak; jarduerak jarraibideak eta jokabide desorekak; sendabelarrak eta aromaterapia; etxeko kudeaketa eta mantenua; eta baita joskintza, sukaldaritza edo informatika hastapena ere. Izen-ematea era ezberdinetan egin daiteke. Alde batetik, www.ikastn.com webgunean edo bestetik, ondorengo telefono zenbakietara deituta: 943 65 11 47 eta 615 77 56 78 (Gemma Zelaia).

Pello Odriozolaren aldeko elkarretaratzea, bihar

POLITIKA • Urte berri bat hasi bada ere, gauza askok berdin jarraitzen dute, eta aurtan ere, Lizardi elkarretakoek, Pello Odriozola aske uzteko eskatuz jarraituko dute. Honen bestez, hilabeteko lehendabiziko ostegunero egiten duten bezala, bihar ere elkarretaratzea egingo dute Plaza Zaharrean. *Pello Lizardi* aretoan bilduko dira 19:00etan.

Karroza eta konpartsetan 'on-line' eman daiteke izena

KULTURA • Gabonak amaitzerako, Inauterietan pentsatzen hasiak dira jada tolosar asko. Hori dela eta, gero eta gertuago daudenez, abian da karroza eta konpartsen lehiaketa. Gainera oraingoan, berrikuntzekin dator, internet bidez eman baitaiteke izena. Lehiaketaren oinarriak Udaleren webgunean (www.tolosakoudala.net/iñauteriak) topatu daitezke. Bestalde, Kultur Etxean ere eskratu daitezke. Bestalde, jai batzordeak gaiaren inguruan argibideak emateko asmoz, bilera deitu du hilaren 12rako. 19:00etan izango da hau, Triangulo plazako Kultu Etxeko areto nagusian.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



Tolosako kabalagatan, Baltasar Erregea ikusiten da agurtzen. Bigarren irudian, Villabonako kabalagataldeko Melchor erregea ikus daiteke. N. LAZARUELA/EL HIRU

Hiru Errege Magoak opari eta gozokiz beteta iritsi dira gurera

Errege Magoak Leitzaldera eta Tolosaldera, Gabonen amaiera hemen dela adieraziz Melchor, Gaspar eta Baltasar Erregeak ekialdetik iritsi dira.

ERREDAKZIOA

Gabon egunetan, batzuk lan gehiagoko izaten badute ere, gehiengoak jai egunak izan ohi dira. Abenduaren 24a gerturazarekin batera, baserriar arropak atera eta etxetz etxe, baserri baserri eta kalez kale abesten ibiltzeko ostarririk berrotzen dira. Olenzero dator eta berarekin opariak. Jan eta edanak ezin falta eta ohi baino paranda gaitia ere izaten da. Urte berriarekin batera ordea, urtero-urtero, Melchor, Gaspar eta Baltasar hiru Errege Magoak eskualdera bisita egiten dute. Erregeak lanez lepo ibiltzen dira, etxe guztietan banatu behar izaten baitituzte opariak.

Hiru Errege Magoak iritsiarekin batera ordea, oporrek ere bukatzen izaten dira. Haurrek eskolarako buelta egin behar izaten dute erregeek ekarritako jostaluz gozatzeko asti handirik gabe eta helduek berri, lanerako bidetara behar izaten dute.

Herriz herri lusioa banatzen

Alegia, Amozola, Anoxa, Areso, Astasa, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Irura, Leiza, Lizartza, Orea, Tolosa eta Villabonako herritarrek zortea izan dute, beraien herrietan atsedendia hartu eta haurrekin egoteko tartea izan baitate.

Hala ere, herri guztietatik pasatzen dira eta gutxi edo asko, denentzat izaten dute zere edo zere. Berastegi, hiru Errege Magoekin batera Olenzero ere iritsi zen eta helduek Gasteizko alreporrituzuzenaren ekarritako leuek banatu zitzen. Haurrei berriz Erregeek opariak eman zitzen. Astesura ere, Elizmendirik barrena, Olenzero eta Erregeak iritsi ziren. Orenan etxetz etxe ibili ziren eta baita Areson ere. Leitzan herriko belesnara gerturatu ziren eta bertan herriko abesbatzak egintzen hartara. Berrobi eta Bidegoianen ere galdialdi egin zuten eta jaiotza ibizidunak izan zituzten. Tolosara Itasakundik, Amozolara San Martindik, Lizartza Zelain aldetik eta Villabonara Amozolatik gerturatu ziren. Muxuak, negarrak, gozokiak eta opariak izan ziren herri guztietan jaun eta jabe.



Anoetan, Basagain mendirik jaitu ziren eta kiriolegira sartu ziren. N. LAZARUELA/EL HIRU

Zurea da Hitza. Sartu gure webgunean eta Zurea da Hitza atalean, zure inguruko abisuetan berri emandakoz. Kea edo gomendonik izanez gero ere, zure hitzak lekua izango du gure webgunean eta baita papereko edizioan ere. Animatu eta sartu zure iritzia: www.tolosaldeko-hitza.info

Iragarki laburrak

SALGAIA
Mahai eta aukiak. Jangelarako, egurreko mahai (gainazala kristalezkoa du) eta berari dagozko 6 aukiz salgai. Mahaiaren neurriak:

120-180 zentimetroko luzera, 90 zentimetroko zabalera eta 76 zentimetro altuera du. Interesa duenak, 699 467 654 telefono zenbakira deitu behar du.



Areson Erregeak etxetz etxe ibili ziren opariak banatzen. N. LAZARUELA/EL HIRU

Inuran herrian buelta egin ostean plazan elkartu ziren guztiak opariak jasotzeko. N. LAZARUELA/EL HIRU



Erregeak iritsi bitarteko orduak

ALBIA Herriko plazan elkartzeok ziren baina eguraldiak lagundu ez zuenez, eguerdi aldean, frontoian bildu ziren herriko haurrek eta baita hauen gurasok ere Hiru Errege Magoak etortzeko orduak aintzagak

izateko margoak, eskulanak eta jolasak izan zituzten. Bukatzeko, txokolata beroa izan zuten tripa ongi beteazko. Amatsalduan, Orenaindik behera agertu ziren Hiru Errege Magoak. N. LAZARUELA/EL HIRU

Amozolara zald gaitia heldu ziren Errege Magoak; bien bitartean, herriko guztiak karriatan aritu ziren kalez kale. N. LAZARUELA/EL HIRU

HITZAK bi sarrera pare ditu
AKABA BERA BERA BM RIBARROJA
Urtarrilak 9 • Larunbata • Bideleku kiroldegian

HITZAK bi sarrera pare ditu
Juan M° Beltranek eskainiko duen ikuskizunerako
Urtarrilak 9 • Larunbata • 20:30ean Tolosaldeko Leizor aretoan

sarrerak eskuratzeko deitu **943-65 56 95** telefono zenbakira

E **Elkarrizketa**

IZARO SAIZAR ETA ELENE ARANDIA » ETB-teko 'Bi Gira' saioko irabazleak

Kultura » 'Bi Gira'-ko hautaprobetara 45 bikote aurkeztu ziren; hamabi onartu zituzten eta guztietan onena Izaro Saizar eta Elene Arandia gazteek osatutakoa izan da.

NOELIA LATABURU

Jendeak behin baino gehiagotan gerarazi ditu kaletik pasa den larunbatetik hona. «Zorionak, oso ondo aritu zineten, merezi zenuen», esaten diete. Izan ere, Izaro Saizar (Berastegi, 1985) eta Elene Arandia (Ibarra, 1989) ETBleko *Bi Gira* saioko irabazleak suertatu dira, epaimahaiak hala ebaztita. Abestea gustuko dutela etagainera ondo egiten dutela erakutsi diote Euskal Herriari.

Nolatan animatu zineten 'Bi Gira' saioan parte hartzera?

Elene Arandia: Uda hasieran azterketetan nengoela deitu zidaten saio berri baterako hautapropa egiteko proposamena eginez. Hasiara batean familia bereko bi kidek osatu behar zuten bikotea, aitona-biloba, esaterako. Izarori deitu nion ea prest egongo zen parte hartzeko jakiteko eta baiezkoa eman zidanez animatu egin genien. Azkenean formatua aldatu egin zuten eta bikoteek ez zuten zertan familia berekoak izan.

Onartu eta hor hasi zen zuen abentura.

Izaro Saizar: Urriaren hasieran hasiginen; hiru hilabete gogor izan dira, egia esan. Beraiek abestia ematen ziguten eta guk prestatu behar genuen astebeteko tartean. Bi ahotsetara moldatu, koreografia... Guztia gure esku uzten zuten.

Eta zer moduz moldatu zineten lan hori aurrera ateratzeko?

E.A.: Lan dezente izan zen. Astebeteko tartea baino ez genuen guztia egiteko; astero abestiaren estiloa aldatzen zen eta dena moldatu behar genuen. Ikasten, lanean, lagunak, familia... Guztirako tarte handirik gabe ibili gara.

I.S.: Dena koordinatu behar zen. Koreografiak ere gure kabuz egin ditugu; abestiaren estiloaren araberako moldatzen genuen. Estetika alorra beraiek bideratu zuten, hori bai. Aste horretan genuen kantaren araberako antolatzen zizkiguten arropa, makillajea, orrazkeran...

Saioaren hasieratik faboritoen artean zeundeten.

E.A.: Faborito, ez dakit. Beste lehiakideen artean bai komentatu zen agian, baina ez guregatik bakarrik. Alde horretatik, ez dugu presio berezirik izan.

I.S.: Egia da, astero-astero gaueko kanturik onena ere aukeratzen zutela eta lau aldiz irabazi genuen hori. Horrek bai animatzen zuen, zerbait esan nahiko zuen, ezta?

Zer moduz joan zen finala?



N. LATABURU

«'Bi Gira'-ri esker gure ahotsak lehen aldiz elkartu ahal izan ditugu»

I.S.: Ondo. Egia esan, arropa-eta-datu joan behar genuenez abesti batetik bestera, beste bikoteen emandaldiak ikusteko aukera handirik ez genuen izan. Amaieran, izena esan aurreko unean gaizki pasa genuen, hori bai.

Larunbatero saioa ikusten omen zenuen. Zer moduz ikusi duzue zuen burua?

I.S.: Batzuetan besteetan baino hobeto, abestiaren araberako izaten zen hori. Zena baitetan ikusterakolan «Ai, ama!» pentsatzen nuen eta besteetan berriz, «Begara, hau ondo atera zitzaigun», esaten nuen.

E.A.: Oro har, positiboa izan da. Irudi kontuetan sartu gabe guk ahotsa eta eszenatoki gainean egindako lana baloratu dugu, musika eta dantza, batik bat. Nahiko profesional jokatu dugu.

Telebista formatu berria zen. Zer moduz moldatu zineten platoon?

I.S.: Niretzat telebistan aritzea berrira izan da. Laiotz plaza taldean aritutakoa naiz, trikitixa lehiaketan ere parte hartu nuen, baita Kantu Txapelketan ere. Baina te-

lebistarena berria zen. Kamera baten aurrean nola jarri, eszenatokiaren gainean nola egon... Hori ikasteko baliagarria izan zait.

E.A.: Nire kasuan ez da telebistan azaltzen naizen lehen aldia edo plato batean lan egiten dudan lehen aldia, bederlatzi urte daramatzat lanean, *Betizu* saioan lehenik, eta beste lan batzuk eginez, ondoren. Baina banuen horrelako saioen bat egiteko gogo. Nahiz eta formatu aldetik beste programa batzuen antza izan, horrelako zerbait falta botatzen nuen. Beste abesti mota batzuk abesteko aukeratu izan dit, eta binaka aritu naiz lehen aldiz. Nahiko positiboa izan da.

Epaimahaiak ere pisu handia zuten saioan. Zer iruditu zaizue euren lana?

E.A.: Oso gogorra izan da euren lana, azken batean beraien irudia kolokan jartzen dute, ezagutaraztea ematen dute hori eta jendeak uste du era batekoak edo besteokak direla, eta guzjak ez dira horrela ere. Euren papera ez da erraza izan.

Zenbateraino hartzen zenituzten aintzat beraiek esandakoak?

I.S.: Gauzak ezin dira oso estu hartu; esandako gauza batzutan arrazoa izan zezaketen, baina beste asko ez dakit zenbateraino ziren horrela.

E.A.: Hori da; gauza asko esateren esaten zituzten.

Zer ekarpen egin dizue saio honetan parte hartzeak?

E.A.: Oso positiboa izan da. Bakoi-tzak bere aldetik guzjak egin genituen aurretik, baina lehen aldia zen gure ahotsak elkartzeko genituela eta saio honi esker egin ahal izan dugu; horrekin geratzen gara. Gerora begira, gustatuko litzaziguke kantua munduan jarraitzea, afizio moduan bada ere.

I.S.: Ahotsak elkartzea gauza handia izan da. Etorrizunarako telebistan ateratzea lagungarria izan daiteke. Azken batean telebista erakuslehoia da. Saioa irabazi dugu eta hemendik aurrera guk eraiki behar dugu gure bidea.

Ez duzue estilurik izan, hortaz, zuen artean.

I.S.: Ez, ondo moldatu gara elka-

» **DI-DA BATEAN**

■ **Musika talde bat.**

Elene Arandia. Nightwish.

Izaro Saizar. Asko.

■ **Bakarleri bat.**

E.A. Lisa Minelli.

I.S. Amaia Zubiria.

■ **Abesti bat.**

E.A. Puff, bakarra ez dakit.

I.S. *Corazon de tango.*

■ **Plaza ala telebistako platoon?**

E.A. Telebistako platoon.

I.S. Plaza, dudarik gabe.

■ **Kantu estilo bat?**

E.A. Metal sinfonikoa.

I.S. Ez dakit, rock-pop agian.

■ **Banaka ala binaka?**

E.A. Biak.

I.S. Banaka gustura, binaka ere bai.

rrekin. Hau ez zen bakarlariren arteko lehiaketa bikoteen artekoa, baizik; biak bat izan gara.

Kamaren atzean, zer moduzkoa izan da giroa lehiakideen artean?

I.S.: Ondo moldatu gara guztien artean. Lehiaketaren amaierara arte heldu direnekin harreman gehiago egiteko aukera izan dugu, baina oro har ondo moldatu gara.

E.A.: Lagunak izan gara guztiak eta horrek ere laguntzen du; esaterako, epaimahaiak zerbait txarra esaten zizunean edo abesti batekin gustura geratzen ez zineten animoak ematen genizkion elkarri.

Eta epaimahaiarekin?

E.A.: Lehiaketan zehar, ez dugu harremanik izan, distantziak mantendu behar zirelako, ez ziguten uzten, arauen barnean zegoen.

I.S.: Zuzendaritzak hala finkatu zigun hasieratik. Baina behin saioa bukatu zenean festa egin genuen

«Lan dezente suposatu du; astero abestia ematen ziguten eta guk moldatu behar genuen guztia»

ELENE ARANDIA

Abeslaria

«Saio hau irabazi dugu, baina hemendik aurrera guk eraiki behar dugu gure bidea»

IZARO SAIZAR

Abeslaria

Donostian eta lasai hitz egin ahal izan genuen beraiekin.

Era askotariko estiloko landu behar izan dituzue.

E.A.: Bai, baladak, dantzalekuetako kantauk, lirikoak... Egia esan, ondo moldatu gara guztietan, ez dugu arazorik izan.

I.S.: Gainera, hiru hizkuntzatan abestu behar izan dugu; gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez. Abesti desberdinak tokatu zaizkigu: Imanolen *Mendian gora*, Whitney Houston-en *One moment in time*, Lisa Minelli-ren *Live is a Cabaret*, Areta Franklin-en *Think...* Oso identifikatuta sentitu gara abesti guztiekin.



2008ko Leitzako Inauterietako Atsaureak, kalejirara irten aurretik Aurrera elkartean atarian. MIEL MARI ELOSEGI

Inauterietako Atsaureen kalejira prestatzeko tailerra eta bilera egingo dute

Leitza » Inauterizale Taldeak larunbatean, 16:00etan eta 20:00etan, tailerra eta bilera antolatuko ditu Aurrera elkartearen.

ASIER IMAZ

Leitzako Inauterietako hilaren 22an, ostiralean, hasiko dira. Ohiturak berriro nahian, Atsaureen kalejira indartzen jarraitu nahi dute aurten ere eta horretarako, Leitzako Inauterizale Taldeak bi deialdi egin ditu hilaren 9rako, larunbatearako.

Tailerra eta bilera

Atsaureen kalejira hilaren 9an hasiko dira prestatzen. Lehenik, 16:00etan, Leitzako Atsaureen zapelak eta arropak prestatzeko tailerra egingo dute Aurreran. Norberak eraman beharko du materiala eta bertan, Inauterizale Taldekoen laguntza izanen du. Aurten gainera «zapela arinogak» egiten saiatuko omen dira.

Bigarren deialdia 20:00etarako egin dute. Ordu horretan Leitzako Inauterizale Taldeak bilera egingo du Aurreran eta herritar guztiak gonbidatu dituzte bertara. Lau puntu eztabaidatuko dituzte.

» BILERAKO GAIAK

- **Lehen puntua.** 2010eko Inauterietako Atsaureen kalejira. Eguna eta ordua zehaztuko dira ibilbidea txistulariekin eta gainontzeko taldeekin koordinatuz.
- **Bigarren puntua.** Atsaureen kalejiraren egunean, kalejiraren aurretik edo ondoren otordu bat egiteko aukera aztertuko dute.
- **Hirugarren puntua.** Leitzako Atsaureei buruz datu gehiago bilteko elkarrizketa batzuk egiteko proposamena luzatuko dute.
- **Laugarren puntua.** Norberak lekarkeena.

Marlaskak presoeri elkartasuna adierazteko afaria debekatu du

Leitza » Etxerateg hainbat ekitaldi antolatuko ditu; tartean atzo arratsaldeko elkarretaraztea eta debekatutako afaria.

ERREDAKZIOA

Espainiako Auzitegi Nazionalako Fernando Grande-Marlaska epaileak atzo Leitzako eskolako jate-txean egitekoa ziren euskal preso-

ekiko elkartasun afaria debekatu zuen arratsaldean.

Guardia Zibilak txostena bidali ondoren hartu zuen epaileak erabakia.

'Maite zaituztegu, elkartasunak ez du mugarik'

Etxerateg hainbat ekimen antolatu ditu Eguberrietarako *Maite zaituztegu, elkartasunak ez du mugarik* lelopean, tartean atzo arratsaldean herriko plazan Errege

Magoen etorrerarekin batera egindako elkarretaraztea eta baita debekatutako afaria bera ere.

«ETA erakunde terroristaren presoeri elkartasunak ez du mugarik» Marlaskaren hitzetan afaria «ETA erakunde terroristaren presoeren taldeari omenaldi» ekitaldia zen.

Horiek horrela, afaria eginez gero terrorismoa gorestearen delitua egingo litzateke epailearen aburuz.

Gutunak

Leitzako institutuko zuzendaria, emakumeen aurkako indarkeriaren eta torturaren konplizea da!

Leitzako institutuan, azaroaren 25ean, *Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako nazioarteko egunean* gertatutakoaren ondoren idatzi hau plazaratzera behartuak sentitu gara. Azaroaren 25ean ikasleok gizarte honetako partaide garen heinean indarkeria sexista salatzeke erabakia hartu genuen, honetarako, kontzentrazio xume batetik haratagoko lanketa egitea beharrezkoa zela iruditu zitzaigun, institutuan indarkeria sexistaren aurkako aldarrikapenak, Euskal Herrian aurten eraildako 7 emakumeen izenak eta emakumeen aurkako bortxa adierazten zuen panpina bat jarri genituen. Honen helburuak indarkeria sexista gaur egungo gizartearen arazo bat dela jakinaraztea, emakumeenganako elkartasuna adieraztea eta jendearen sentsibilizazioa bilatzea ziren.

Honen aurrean Leitzako institutuko zuzendaritzak, Peio Zestau zuzendaria buru duela, 2. ordurako kartelak, eraildako emakume-

en izenak eta indarkeria adierazten zuen panpina, desagerrarazi zituzten. Zergatik egin zenuten hau? Zein zen zuen helburua? Zein gizarte eredu irakatsi nahi diezue zuen ikasleei?

Ez da lehen aldia hau gertatzen dela, torturaren aurkako egunean, institutu atarian pertsona torturatua irudikatzen zuen panpina bat jarri zen: aulkira lotuta, buruan plastikozko poltsa bat zuela. Eta hau ere, aurrekoa bezala, herriari ezkututzen saiatu zen. Torturaren aurrean isilik dauden partidu politikoekin jarrera salatzen zuen pankarta bat jarri zen, eta honek ere zakarrontzian amaitu zuen.

Gure ustez, hau guztia ez da adierazpen askatasunaren aurkako erasoa soilik, gu guztion oinarriko eskubideen aurkako erasoa baizik.

Jakin ezazue, gizarte eredu berri baten alde borrokan jarraituko dugula eta ez garelako nahietara makurtuko, ikasleria hezten jarraituko dugula, zuen diktadurari amaiera eman arte!

Indarkeria sexista Stop! Tortura Stop!

Ekaitz Astibia, Leitzako ikasle eta ikasle ohi batzuen izenean. Leitza

Gaur Tolosako Shanti Trofeoaren finalak

ERREDAKZIOA

Shanti Trofeoaren XXVIII. edizioa bost finalak gaur jokatuko dira Tolosako Usabal kiroldegian, 09:30etik aurrera. 45 minuturo jo-


katuko dira partidak eta azken lehia 12:00etan hasiko da. Benjaminetan mutilek bi final jokatuko dituzte eta neskek bakarra. Alebinetan final bana jokatuko dute.

Oinatz Bengoetxeak hilaren 11n jokatu du

ERREDAKZIOA

Eskuz Binakako Txapelketa gaur jarriko dute martxan Berasalzu VIII.a-Begino eta Gonzalez-Laskurainek Eibarren. Oinatz Bengo-

etxea-Beloki bikoteak hilaren 11n jokatu du euren lehen partida, Tolosako Beotibar pilotalekuan. Asegarcekoen aurkariak Xala eta Zubieta izango dira.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta/Leizaola: 687 410 022. anoeta/leizaola@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra/Leizaola: 687 410 032. ibarra/leizaola@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza/Leizaola: 687 410 118. leitza/leizaola@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta
Leitza/Leizaola beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Tolosa.** Euskal Herria plaza erre-
kuperatu eta oinezkoentzat jartze-
ko prozesuarekin jarraituz hilaren
11n hasiko dira plazako zoladura
birgaitzeko obrak. Hori dela eta,
etzitik aurrera, hilak 8, debekatuta
egongo da bertan aparkatzea. Pla-
za errekuiperatzeko, honako gauza
hauek egingo dituzte: argitasun
baldintzak hobetu (egin dute
jada), zoladura konpondu eta hiri
altzari berriak jarri. Jarduketan ho-
nen helburu nagusia da oinezkoen-
entzat errekuiperatzea Tolosako
Hirigune Historikoko espazio eza-
guta eta ospetsu hau.

Zinema

■ **Tolosa.** *Petit indi* filma Leidor are-
toan bihar 19:15ean eta 21:45ean,
zine-forumaren baitan.
■ **Tolosa.** *Celda 211* filma etzi, hilak
8, Leidor aretoan 22:30ean. Igan-
dean 19:30ean eta 22:00etan es-
kainiko dute eta astelehenean, al-
diz, 20:30ean. Ikuslearen eguna
izango da astelehenekoa.
■ **Tolosa.** *El curioso caso de Benja-
min Button* filma igandean, hilak 10,
Bonberenean 19:00etan.

Musika

■ **Tolosa.** Gariren kontzertua Bon-
berenean etzi, hilak 8, 22:30ean.
■ **Tolosa.** Hilaren 9an, larunbata,
Irrati maratoia izango da Bonberene-
an 11:00etatik aurrera eta baita
Biok taldearen kontzertua ere
22:30ean.
■ **Tolosa.** Hilaren 9an, larunbata,
Juan Mari Beltranen *Ttakuñ tta tta-
kun* CDaren aurkezpen kontzertua
Leidor aretoan 20:30ean. Kukai
Dantza Taldeko Jon Maya eta Va-
nesa Castaño eta Hernaniko mu-
sika eskolako ikasle txalpartariak
ere parte hartuko dute.
■ **Tolosa.** Hilaren 10ean, igandea,
Amaia Zubiriaren kontzertua
Fronton kafetegian 23:00etan.

Txotxongiloak

■ **Tolosa.** Los Duendes txotxongi-
lo taldearen *La Caperucita no, gra-
cias* Topic-en hilaren 9an, larunba-
ta, 17:00etan. Igandean 12:30ean
izango da emanaldia.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Moraut, R. Zabalarreta,
1.943 67 36 49.
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36,
112.

HITZAK ez du bere gain hartzen
egunkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzukizunik.

Atzo bukatu zen Tolosako Laskorain Ikastolak urtero antolatu ohi duen Merkatu Txikia. Eguberri egunetan zehar Kultur Etxean izan da eta marka hautsi dute, 17.000 euro bildu dituzte eta.

Inoiz baino jende gehiago azokan

ERREDAKZIOA

Arrropa, jostailuak, libu-
ruak, etxetresnak... dene-
tarik izan dute Eguberri
egunetan zehar Tolosako Kultur
Etxean.

Izan ere, abenduaren 26tik atzo
arte Laskorain ikastolak urtero an-
tolatzen duten Merkatu Txikia
izan da, 14. zehazki. Oraindik ere
goiz da salduetako guztiaren konta-
keta egiteko, baina antolatzaileen
hitzetan marka hautsiko dute aur-
tengoan. «Normalean 16.000 euro
inguru jasotzen dugu, baina aurtan
17.000 eurotara iritsiko garelakoan
gaude». Ondorioz, antolatzaileak
«oso gustura» daude aurtengo
azoka berezi honek eman duena-
rekin.

India eta Sahara

Merkatu Txikiaren helburu nagusia bertan lortutakoarekin garapen bidean diren herrialdeei laguntzea da, Indiako eta Saharako proiektuetara, hain zuzen.

Horiek horrela, «ikastolako ikasle ohien proposamena aintzat hartuta», Indiako ipar-mendebaldeko Sanand herrian zentro soziokulturala eraikitzen lagunduko dute, batetik. Lurralde horretan, gizonezkoen %80 dago alfabetatua eta emakumezkoen %58 soilik. Proiektu honekin, ikasleak biltzeko gune bat izateaz gain, emakumeek euren arazoak eta irtenbideak hitz egiteko lekua izango lukete.

Halaber, mailen arabera eskolak eman nahi dituzte, haurrek txertatzeko gune egokia edukitzeko eta kultur jarduerak burutzeko. Bestalde, ateratzen dituzten ekoizkinak negoziatu ahaliko dituzte, eta

salerosteko toki finkoa eduki. Bi urtetan garatuko dute zentroaren proiektua Ibaratik misio taldeak eta Vedruna Seva Soziety elkarteak elkarlanean.

Lagunduko duten bigarren proiektua Sahara askeko Meheriz herrian kokatzen da. Bertan, Lehen Hezkuntzako ikastetxe baten eraikuntzarako eta ekipamendurako erabiliko dute bildutako dirua.

Gazteei hezkuntza bermatzea du helburu, gero hauek goi maila ikasketak egin dituzten. Tolosaldea Sahararekin elkarteko kide egiteko dute proiektuaren jarraipena.



Jende asko bildu zen Merkatu Txikiko atzoko azken egunean Tolosako Kultur Etxean. E. EZEIZA

A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak